


2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria



Kontinentea: Europako herrialdea da. Euskaldunen eta euskararen lurraldea da. Pirinio mendien mendebaldean dago, Frantzia eta Espainiaren arteko mugan. Euskal Herriak 20.664 km²-ko azalera du, eta gutxi gorabehera 3.000.000 bizilagun: 2.500.000 Hegoaldean (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa) eta 500.000 Iparraldean (Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoa).

Hiriburua: Iruñea

Hiri nagusiak: Bilbo (handiena), Iruñea, Baiona, Donostia, Gasteiz.

Eremua: 20.664 km²

Biztanleria: 3.007.661 (2006)

Dirua: euroa

Egungo mugak: Kanpo mugei dagokionez honako hauek ditu:


- Hegoaldean Espainiako hiru autonomia erkidego: Errioxa, Gaztela eta Leon, Aragoi.
- Mendebaldean Espainiako bi autonomia erkidego: Gaztela eta Leon, Kantabria.
- Iparraldean Frantziako departamendu bat: Landak.
- Ekialdean Frantziako Pirinio Atlantikoetako beste lurraldea eta Espainiako autonomia erkidego bat: Biarno, Aragoi.

2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

ARABA eta Gasteiz




Araba: Euskal Herriko zazpi lurraldeetako bat da. Beste lurraldeek baino biztanle gutxiago ditu. Ez du itsasorik. Araban mendiak, lautadak eta Ebro inguruko bailarak daude, oso paisaia ezberdinak dira. Klima ere ez da uniforme, tenperaturak gora-behera handiak izaten ditu. Jendea industria, nekazaritza eta abeltzaintzatik bizi da.

Mugak: Iparraldean: Gipuzkoa eta Bizkaia.
Ekialdean: Nafarroa.
Hegoaldean: Errioxa
Mendebaldean: Burgos

Antolaketa: Estatu: Espainia
Hiriburua: Gasteiz
Eremua: 2.963 km²
Biztanleria: 301.926

Gasteizek 27.568 biztanle ditu. Gasteiztik Zadorra ibaia pasatzen da. Industri hiri berria da, inmigrante asko dago. Hirigune zaharren inguruan industri poligonoak eta langile auzoak daude. Eusko Jurlaritza eta Legebiltzarra Gasteizen daude.





2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

ARABA eta Gasteiz: argazki bilduma



2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

ARABA eta Gasteiz: argazki bilduma





2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

ARABA eta Gasteiz: argazki bilduma




2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

ARABA eta Gasteiz: puzzlea




2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

BIZKAIA eta Bilbo



Bizkaia: Euskal Herriko zazpi lurraldeetako bat da. Kostaldean dago. Kostaldea koskatsua eta irregularra da, hondartzak txikiak dira. Barnealdeko mendiak altuak dira. Ibaiak motzak dira. Euskal Herriko lurralderik populatuena da. Batez ere, industrietatik bizi da jendea.

Mugak: Iparraldean: Bizkaiko Golkoa.
Ekialdean: Gipuzkoa.
Hegoaldean: Burgos eta Araba.
Mendebaldean: Kantabria.

Antolaketa: Estatu: Espainia
Hiriburua: Bilbo
Eremua: 2.217 km²
Biztanleria: 1.143.400

Bilbo Euskal Herriko hiririk handiena da eta 358.567 biztanle ditu. Nerbioi ibaia pasatzen da hiritik. Zubi ugari ditu. Oso industrialia da. Modernoa eta handia da, eta merkatal gune garrantzitsua ere bai. Ongi komunikatuta dago: metroa, tranbia, eta autobusa ditu. Guggenheim museoa ikustera turista asko joaten da Bilbora.




2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

BIZKAIA eta Bilbo: argazki bilduma





2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

BIZKAIA eta Bilbo: argazki bilduma




2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

BIZKAIA eta Bilbo: argazki bilduma



2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

BIZKAIA eta Bilbo: puzzlea




2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

GIPUZKOA eta Donostia




Gipuzkoa: Euskal Herriko zazpi lurraldeetako bat da. Kostaldean dago, Kantauri itsasoaren ondoan. Hondartza asko ditu, txikiak baina oso turistikoak. Oso menditsua da, baina mendiak ez dira oso altuak. Jendea industrietatik bizi da batez ere. Nekazariak eta arrantzaleak ere badaude. Hiri batzuk oso turistikoak dira.

Mugak: Iparraldean: Bizkaiko Golkoa.
Ekialdean: Nafarroa eta Lapurdi.
Hegoaldean: Araba.
Mendebaldean: Bizkaia.

Antolaketa: Estatuak: Espainia
Hiriburua: Donostia
Eremua: 1.909 km²
Biztanleria: 691.895

Donostiak 185.000 biztanle ditu. Donostiatik Urumea ibaia pasatzen da. Igeldo, Urgull eta Ulia mendien artean dago. Hiru hondartza ezagun ditu: Ondarreta, Kontxa eta Zurriola. Kontxako badian Santa Klara uhartea dago. Kultura eta turismo hiria da: zinemaldia, pintxoak... oso famatuak dira.




2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

GIPUZKOA eta Donostia: argazki bilduma





2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

GIPUZKOA eta Donostia: argazki bilduma




2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

GIPUZKOA eta Donostia: argazki bilduma




2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

GIPUZKOA eta Donostia: puzzlea




2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

NAFARROA eta Iruñea



Nafarroa: Euskal Herriko zazpi lurraldeetako bat da, handiena. Ez du itsasorik. Hiru lurralde bereizten dira. Iparraldea: oso menditsua da. Erdialdea: herririk handienak hemen daude. Erribera: Ebro ibaiaren ondoko lurraldeak dira. Klima ez da uniformea: iparraldea euritsua da eta hegoaldea lehorra. Nekazaritza oso garrantzitsua da, industria eta zerbitzuak indartzen ari dira.

Mugak: Iparraldean: Lapurdi, Nafarroa Behea eta Zuberoa.
Ekialdean: Aragoi.
Hegoaldean: Errioxa.
Mendebaldean: Gipuzkoa eta Araba.

Antolaketa: Estatuak: Espainia
Hiriburua: Iruñea
Eremua: 10.391 km²
Biztanleria: 601.874

Iruñeak 195.769 biztanle ditu. Iruñetik Arga ibaia pasatzen da. Alde zaharra oso polita da: harresiak, gotorlekua, zitudela... San Ferminak dira festa ezagunenak.





2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

NAFARROA eta Iruñea: argazki bilduma





2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

NAFARROA eta Iruñea: argazki bilduma




2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

NAFARROA eta Iruñea: argazki bilduma



2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

NAFARROA eta Iruñea: puzzlea




2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

LAPURDI eta Baiona



Lapurdi: Euskal Herriko zazpi lurraldeetako bat da. Kostaldean dago; hondartza eta kala ugari ditu. Herriak etxe txikiz beteta daude. Hegoaldean Pirinioak hasten dira. Lapurdiko ibaiak motzak dira. Iparraldeko aireportu bakarra Lapurdin dago, Biarritzen. Turismo, industria, zerbitzu eta arrantzatik bizi dira.

Mugak: Iparraldean: Landak.
Ekialdean: Nafarroa Beherea.
Hegoaldean: Gipuzkoa eta Nafarroa.
Mendebaldean: Bizkaiko Golkoa.

Antolaketa: Estaturik: Frantzia
Hiriburua: Baiona
Eremua: 858 km²
Biztanleria: 205.000

Baiona: Kostaldetik hurbil dago. Hiriko erdigunea hiru auzotan banatuta dago:

- 1. Baiona Handia:** Errobi ibaiaren ezker aldean, bertan dira Gaztelu Zaharra eta Katedrala.
- 2. Baiona Ttipia:** Errobiren eskuin aldean.
- 3. Espiritu Saindua:** Aturri ibaiaren eskuin aldean, Zitadelaren magalean, Portugal eta Espainiatik kanporatutako juduak bertan kokatu ziren. Beste hainbat eraikin eta museo aipagarri ere bada: Euskal museo eta liburutegia, Bonnat museoa, Merkataritza Ganbera.



2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

LAPURDI eta Baiona: argazki bilduma




2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

LAPURDI eta Baiona: argazki bilduma




2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

LAPURDI eta Baiona: argazki bilduma



2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

LAPURDI eta Baiona: puzzlea




2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

NAFARROA BEHEREA eta Donibane Garazi




Nafarroa Beherea: Euskal Herriko zazpi lurraldeetako bat da. Ez du kostalderik, lurralde menditsua da, mendirik altuenak Pirinioetan daude. Klima epela dauka udan eta hotza neguan. Jendea nekazaritzatik eta abeltzaintzatik bizi da, ia ez dago industriarik.

Mugak: Iparraldean: Landak.
Ekialdean: Zuberoa.
Hegoaldean: Nafarroa.
Mendebaldean: Lapurdi.

Antolaketa: Estaturik: Frantzia
Hiriburua: Donibane Garazi
Eremua: 1.325 km²
Biztanleria: 29.000

Donibane Garazik 1.500 biztanle ditu gutxi gorabehera. Ia ez dago industriarik, merkataritza gunea da. Turismoak garrantzi handia du: hotel, jatetxe asko daude. Gotorlekua, alde zaharreko kaleak, zubiak oso ezagunak dira.






2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

NAFARROA BEHEREA eta Donibane Garazi: argazki bilduma




2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

NAFARROA BEHEREA eta Donibane Garazi: argazki bilduma



2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

NAFARROA BEHEREA eta Donibane Garazi: argazki bilduma




2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

NAFARROA BEHEREA eta Donibane Garazi: puzzlea




2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

ZUBEROA eta Maule




Zuberoa: Euskal Herriko lurralderik txikiena da. Oso menditsua da, Euskal Herriko mendirik altuenak hemen daude, Orhi (2.017m), Hiru Erregeen Mahaia (2.428 m). 27 tontor 1.000 metrotik gorakoak daude. Neguak gogorrak dira, mendietan hotz eta elur asko egiten du. Udak freskoak dira. Jendea abeltzaintza eta basogintzatik bizi da. Jende asko kanpora joan da lan egitera.

Mugak: Iparraldean: Landak.
Ekialdean: Biarno.
Hegoaldean: Nafarroa.
Mendebaldean: Nafarroa Beherea.

Antolaketa: Estatu: Frantzia
Hiriburua: Maule
Eremua: 760 km²
Biztanleria: 17.143

Maule da hiribururik txikiena. Hiria muinoz inguratuta dago, gain batean gaztelu zaharra dago. Ekonomia artisautzari lotuta dago. Fama handia dute espartinek.




2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

ZUBEROA eta Maule: argazki bilduma







2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

ZUBEROA eta Maule: argazki bilduma



2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

ZUBEROA eta Maule: argazki bilduma



2.3 AZKEN XEDEA: EUSKAL HERRIKO HIRIBURUAK



- Euskal Herria

ZUBEROA eta Maule: puzzlea

